

(gazteen eta nerabeen)

HIZKUNTZA-IDEOLOGIAZ MINTZATUKO GARA?



Euskal Soziolinguistika Jardunaldia
Gazteak mintzo: diskurtsoak eta etorkizunerako proiektzioak
Hendaia, 2023-03-25



Inoren agendan agertzen ez zen bidegurutzeak
semaforo denak piztuak ditu intermitentean
Uhalak laxatuta, bihotzak barrurantz
eta gure neurriko zapatarik ez (...)
Zer, noiz, nora, nondik, nola, zertarako
nori, noiz arte, noiz arte, noiz arte

Euskalduna naiz, bai,
euskalduna naiz baina
igual besteak bezela ez,
porque nik beti
gazteleraz hitz egiten
dut; eskolan bai
euskeraz, baino bestela
gazteleraz beti

Nere ustez [euskara] bai
inportantea da, baino ez hain
inportantea, ze nere ustez igual
inportanteagoa da gaztelania, ze
euskerarekin nik uste dut bakarrik
Euskal Herrian...Ta ongi do, Euskal
Herrian ongi, baino es que
ateatzen zera ta ez dizu balio beste
herri batzuentzako

[Euskara garrantzitsua da]
Pues, gure hizkuntza delako,
nere hizkuntza da. Ingles,
aleman batek bere hizkuntza
maite dun bezela, neria
behintzat euskera da! Euskal
herriko hizkuntza euskera da
ordun garrantzitsua da

Saioa, 13 urte

Garazi, 15 urte

HIZKUNTZA-IDEOLOGIAREN DEFINIZIOA

Hizkuntzaz hiztunak dituen sinesmen-multzoak dira, estruktura eta erabilera linguistikoa hautemateko duen modua arrazionalizatzeko edo justifikatzeko.

Joly eta Uranga, 2010:185

Hizkuntzaren eta gizakien arteko harremana gizarte-munduari baitan interpretatzen duten errepresentazio esplizituak nahiz inplizituak.

Woolard, 2012:19

HIZKUNTZA-IDEOLOGIAZ OINARRIZKO BOST IDEIA

1 Eraikuntza soziala da

2 Hizkuntza gaitzen du

3 Errealitatean eragiteko gaitasuna du

4 Askotariko agentzia elkartzen ditu bere baitan

5 Etorkizuneko aldaketen berri emateko gaitasuna du

Hizkuntza-ideologien zirkulazioa

Jaime: Euskarak gauza guztietarako balio du?

Mateo: Para todo, no. *[guztietarako ez]*

Ander: Ez, gauza guztietarako ez.

Iñigo: gauza askotako, bai.

Mateo: Igual pa todo, no. Pero igual si quieres trabajar en Euskadi te puede ayudar.
...*[guztirako beharbada ez, baina Euskadin lana egin nahi baduzu lagundu dezake]*

Julen: Eso es, sí. *[Hori da, bai]*

Iñigo: Baina kanpotarrekin ta hitz egiteko, ez. Ya inglesa jakin behar duzu.

Jaime Uste duzue euskaraz hitz egin behar dela?

Ander: Bakoitzak nahi duna ingo du

Mateo: Sí, bueno, no es obligatorio pero a mi no me gustaría que se perdiera la lengua. ...*[Bai, bueno, ez da derrigorrezkoa, baina niri ez litzaidake gustatuko hizkuntza galtzea]*

Julen: Ah, ya!

Ander: Pues, habla en euskera. *[euskaraz hitz egin ezazu ba!]*

Julen: Lo intentamos. *[saitzen gara]*

Denis: Para mí es complicado. Cuando tus padres lo hablan, para tí es fácil, pero...*[Niretzat zaila da. Zure gurasoek hitz egiten dutenean, zuretzat erraza da baina...]*

Iñigo: Nei amorrua ematen dit batzutan donostiarrak erderaz eitia, ta Bilbo aldian ta danak erderaz eitten due. Euskal Herrian eon ta erderaz hitzeiten ba...

Ander: Euskal Herrian euskeraz egin behar delako...

Iñigo: Dakite ta erderaz...

Jaime: Asko esaten dizute “Euskaraz hitz egin”?

Mateo: Eskolan bai. Los profesores. *[irakasleek]*

Jaime: Ta zer sentitzen duzue horrelakoetan?

(Hasieran isiltasuna sortu da, kosta egin zaie erantzutea)

Julen: A veces un poco obligados, porque si no habláis: cero coma cinco...
[batzuetan piska bat behartuta, ez baduzue hitz egiten: zero koma bost...]

Mateo: Si estoy en la clase de euskera pues claramente tengo que hablar euskera. Pero, a veces, para hacer los ejercicios y así, pues hablamos en castellano un poco. Pero el profesor tiene un oído que te cagas y oye todo, y entonces nos dice *[euskaraz hitz egiteko]*. *[euskarazko klasean egonez gero, argi dago euskaraz hitz egin behar dudala. Baina, batzuetan, ariketak egiteko eta horrelakoetan gaztelaniaz hitz egiten dugu. Baina irakasleak sekulako entzumena du eta dena entzuten du eta orduan esaten digu euskaraz hitz egiteko]*

(12-13 urteko futbolariak)

Hizkuntza-ideologien zirkulazioa

Euskararen aldeko errepresentazioak

Hizkuntza gutxitua biziberritzearen ideia

Zaurgarritasuna

Nortasuna

Ahuldutako hizkuntza
Kontserbazioaren ardura

Gutasuna
Nortasun kolektiboaren
funtsezko elementua

Antzintasuna

Berezitasuna



Adostasuna eta erresistentzia
“ulertu eta paso”



Zilegitasunaren auzia
Benekotasuna vs Anonimotasuna
(Eus) (Fr–Es– n)
(Batua?)

Liberalismo linguistikoaren aldeko diskurtsoak

Hizkuntzen merkatu librearen ideia

Elebakartasunaren ideol.

Hizkuntza individualizazioa

Egiturazko baldintzei erreparatu
gabe askatasun individualaren
aldarria

1.1. Euskaraz hitz egitearen 'kultur-ardura' (Urla,1988)

- Eskolaren bidez zabaltzen den diskurtsoa (euskaraz hitz egin!), baita zenbait familien bidez ere.
- Horren aurrean nerabeek erantzun anitzak:
 - Bat egin
 - Onartu
 - Paso egin
 - Erresistentzia

Jaime: Lehen esan dezue irakaslek askotan esaten dizuetela "euskeraz hitz egin"...

Maddi: Bastante

Jaime: Ze sentitzen dezue hori esaten dizutenean?

Leire: Esaten degu baietz eta...

Maddi: Seguimos a nuestro rollo

13-14 urteko dantzariak

1.2. Euskarari buruzko ideologiak eta arrazoibideak

- Hizkuntzaren zaugarritasuna eta kontserbatu beharra:
 - Euskara “ahuldutako” hizkuntza: “galdu”, desagertu daitekeen hizkuntza
 - Bi ezaugarriekin lotuta: Antzinatasuna eta berezitasuna.

Alaitz: Nik uste dut nola aspaldikoa den eta hoi, nik uste dut zaindu egin behar dela.

Zeba hain altxor preziatua galtzea pena bat izango zen.

Saioa: Bai, berdin...[pentsatzen dut]

Sonia: Bai. O sea, nere ustez bai. Zea, inportantea da hizkuntz bat eukitzea. Ta pues ez galtzeko inportantea da hitz egitea.

13 urteko dantzariak

- Nortasun kolektiboa, euskal identitatea

Gure hizkuntza da, nere hizkuntza da. Eh, ingles, aleman batek bere hizkuntza maitte dun bezela, neria behintzat euskera da. Euskal Herriko hizkuntza euskera da. Ordun garrantzitsua da.

Garazi, 14 urteko dantzaria

1.3. Hizkuntzen merkatu librea

- Hizkuntzen erabilera aukera indibiduala

Ander: Bakoitzak nahi duna ingo du

Mateo: Sí, bueno, no es obligatorio pero a mi no me gustaría que se perdiera la lengua

Julen: Ah, ya!

12-13 urteko futbolariak

1.4. Anonimotasuna eta benetakotasuna

Authenticity & Anonymity (Kathryn Woolard)

Benetakotasunaren ideologia

Autentiko edo benetakotzat joko da komunitate horren adierazpide propioa den hizkuntza, berezkoa, komunitate horren esentziaren adierazpidea, alegia. Ikuspuntu honen arabera, aldaera bat zenbat eta sustraituago egon eskualde geografiko eta giza-komunitate jakin batean, orduan eta balio handiagoa izango du. Benetakoa izateko, beraz, hizkuntza aldaerak **nonbaitekoa izan behar du. Norbaitzuen**. Zenbat eta lokalago eta zehatzago hobe (Artetxe, 2020:231).

Anonimotasunaren ideologia

“By anonymity, I mean that the modern **“public”** itself, as a social space that generates a common public discourse, supposedly includes everyone, but it abstracts away from each person’s private and interested individual characteristics to distill that common voice. (...) Such anonymity is attributed not just to publics but also to the languages that articulate such publics. Ideally, the citizen participating in public discourse speaks in what we could call a **“voice from nowhere”** (Woolard, 2016 :25).

1.4. Anonimotasuna eta benetakotasuna

- Orohar:
 - Euskara > benetakotasuna
 - Gaztelania, frantsesa, ingelesa > anonimotasuna
- Euskarari nolabaiteko funtzionaltasuna eta euskara batuaren bidez anonimotasun kutsua

Jaime: Euskarak gauza guztietarako balio du?

Mateo: Para todo, no.

Ander: Ez, gauza guztietarako ez.

Iñigo: gauza askotako, bai.

Mateo: Igual pa todo, no. Pero igual si quieres trabajar en Euskadi te puede ayudar.

Julen: Eso es, sí.

Iñigo: baina kanpotarrekin ta hitz egiteko, ez. Ya inglesa jakin behar duzu.

12-13 urteko futbolariak

- ‘Benetakotasunaren kale itsuaren paradoxa’:

Hiztun berriek euskararen anonimotasunaren mugak hautematen dute + benetakotasuna lortzeko mugak

Ander: Bakoitzak nahi duna ingo du

Mateo: Sí, bueno, no es obligatorio pero a mi no me gustaría que se perdiera la lengua

Julen: Ah, ya!

Ander: Pues, habla en euskera.

Julen: Lo intentamos.

Denis: Para mí es complicado. Cuando tus padres lo hablan, para tí es fácil, pero...

12-13 urteko futbolariak

Uxue: Es que nei natural ateatzen nau, o sea, nik ez dut pentsatzen nola... [hitz egin]. Nei ateatzen nau eta ya esta!

Oihane: Hoi da.

13 urteko dantzariak

Euskaldun zahar? Euskaldun berri?... Euskaldun!

‘euskaldun berri’/‘euskaldun zahar’ ohiko dikotomia zaharkituta dago (Ortega et al., 2016:184).

- Zailtasunak definitzeko eta identifikatzeko
 - Zaharren hizkera? Jaiotakoa? Etxean jasotakoa?
 - Euskaltegian ikasitakoa? Eskolan? Gazteek erabiltzen duten hizkera?
- Interes berezirik ez kategoria horiekin identifikatzeko: euskaldun nahikoa zaie.
- Helduen mezuaren arabera, nerabea zerbait falta zaien hiztuna denez, zaila da benetakotasuna ematen duen euskaldun zahar kategoriarekin identifikatzea.

Aldatzen ari den zerbaiten erakusle?

Euskal hiztunekin lotutako legitimitate eta autoritateak aldatzen ari direla?

Hizkuntza-ideologiak eta generoa

>>> Mutilek ez dute euskara biziberritzean horrenbesteko ardura adierazten

1. Eremu formal eta instituzionalarekin lotura
2. Zaintza eta transmisioarekin lotura
3. Gazte-kulturaren prestigioa eta kapital sinbolikoarekin lotura falta

Irene: [Euskara taldeko] batzuk eingo diete hurrei irakurri ipuinak, geo irakasleak e bai ingo diote, gero iten da txoko bat jantokian egongo dila liburu pilo bat ta eiten da bozkatu a ver ze liburu den zure gustukona euskeraz, hamar urte bitarten. Ta geo ateratzen da liburu irabazlea. Ta euskararen egunean e bai Argitxon gutuna irakurtzen ta...

Sara: Umeentzako gu ga Argitxon laguntzaileak. Geo handiagok garenean, geroz ta maila gehio, ordun [Euskara taldekoak] . Hoi da. Baina txikientzako Argitxon laguntzaileak. Gaina, Argitxok dauka txapel gorri bat ta kanpaina bat aurkeztea jun behar degunean gure bai txapel gorri bat erameten deu.

(Sara, 13 urte eta Nerea, 14 urte)

Irene: Ba, nik ustet, mutilei iruitzen zaiela ba..., orokorrean baina, batez e mutilei, gure mailan behintzat, ikusten dena da mutilak asko zehatzen dia, "hau eiten badut gero popularrago izango naiz"...

Sara: Ta igual e bai pentstazen due mutilak deportiakin daudela eta nola [euskara taldea] ez den deportia eitea ba pues esaten due "ba, hoi ez da niretzat bezela!".

(Sara eta Irene, 13 urte eta Nerea, 14 urte)

AZKEN HAUSNARKETA

Hizkuntza ideologiaren bidezko alkimiari bidez, talde dominanteen hizkuntza-kapitalak distintzioa lortzen du. Goragoko maila hori hizkuntzaren esentziari berez dagokiola itxura hartzen du, istripu (arrazoi, garapen) historiko bati baino gutxiago, eta horrek hiztun subalternoen onarpena ekartzen du.

Woolard, 2021:02

- Haur, nerabe eta gazteei begira: euskaratik eta euskaraz subjektibitateak sortzeko guneak eta agentzia aitortu
- Marko diskurtsiboak pentsatzeko beharra
helduen auzia, erdaren derrigortasuna, euskararen noranahikotasuna...
- Hizkuntza-ideologiaz hitz egiteko garaia



«Hitza hitz» dio zeruko pintada handiak,
hastear da ikastear dugun garai berria.

Ibil Bedi «Basozain»

